# #astekonomia

Urriaren 13tik 17ra bitarteko astea

## Euskadiko BPGa %2,2 hazi zen hirugarren hiruhilekoan

### EAEko BPGaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat

Eustatek argitaratutako aurrerapenaren arabera, **2025eko hirugarren hiruhilekoan Euskadiko BPG %2,2 hazi zen, 2024ko hirugarren hiruhilekoaren aldean**. Horrela, egonkortu egin da aurreko bi hiruhilekoetan erregistratutako zifretan. Era berean, enpleguak bilakaera positiboarekin jarraitu zuen eta % 1,4 hazi zen 2024ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

## Enpresen konfiantza hobetu da laugarren hiruhilekoan

### Enpresen konfiantza

Indizea




Iturria: INE

INEk aste honetan argitaratutako informazioaren arabera, **EAEko enpresen konfiantza hobetu egin zen 2025eko laugarren hiruhilekoan**. Zehazki, indizeak 139,5eko maila lortu zuen, serie historikoko baliorik altuena Era berean, enpresek adierazi zuten hiruhileko berriari buruzko aurreikuspenek hobera egin dutela

# Kontsumoko prezioak %3,3 igo ziren irailean

**EAEko kontsumo prezioen indizea**

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: INE.

**Iraileko KPIaren urte arteko aldakuntza tasa %3,3an kokatu zen Euskadin, aurreko hilean baino bost hamarren gorago**. Energiaren prezioa %6,8 igo zen, eta horrek hondar-inflazioa %6,7ra eraman zuen. Aldiz, azpiko inflazioa nahiko egonkor mantendu zen, abuztuan %2,6 izatetik irailean %2,7 izatera igaro baitzen.

# Langabezia tasa %6,8ra igo zen 3. hiruhilekoan

**Langabezia tasa Euskadin**

Ehunekoa




Iturria: Eustat

Eustaten datuen arabera, 2025eko hirugarren hiruhilekoan **langabezia tasa %6,8 izan zen, bigarren hiruhilekoan baino 1,1 puntu altuagoa.** Hala ere, 1.006.000 landun baino gehiago daude oraindik. Iazko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, joera positiboagoa da. 8.400 landun gehiago daude, hau da, langabezia tasa lau hamarren txikiagoa da.